



euskalmendizalefederazioa

## EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN AKTA

Honako hauek bildu dira Gasteizen, federazioaren egoitzan, 2017ko urtarrilaren 16ko 19:00etan:

PRESIDENTE LANETAN: Fernando Rodríguez Ibáñez

IDAZKARI LANETAN: Fernando Alcalde Olivares

BATZORDEKIDEA: Jesús María Agirre Lazkano

### ERABAKI HAUEK HARTU DITUZTE:

1.- Behin-behineko izaeraz onartutako Joseba Sekundin Ugalde Egaña jaunaren hautagai-zerrendaren aurka Domingo García Valeriok egindako inpugnazioa gaitzestea erabaki da, honako arrazoi hauetan oinarrituta:

#### Lehena.- Estatutuak ez betetzea

Estatutuetako 26.1 artikuluan eta Federazioen Dekretuko 90. artikuluan ezarritakoa betetzen da kasu guztietan, hautagai-zerrenda presidentek, presidenteordeak, idazkariak eta diruzainak (4) gehi Lurralde Federazioetako presidentek (3) osatzen baitute; ZAZPI dira guztira, beraz (zenbaki bakoitia).

#### Bigarrena.- Emakumeen ordezkari-tza Joseba Sekundinen hautagai-zerrendan

Emakumeen ordezkari-tzari dagokionez, irizpideak eta betebeharrak bereizi behar dira.

Hautagai-zerrenda ezin da baliogabekotzat jo, baina gerta daiteke egoera horren ondorioz diru-laguntza jakin batzuk jasotzeko aukera galtzea edo beste onura batzuen galera gertatzea.

Boto-emaileek balioetsi beharko dute gai hori, aurrekontuari eta jarduerari eragin baitiezaieke.

Ez dago estatutu-arau bati estaldura ematen dion lege-araurik funtsezko eskubideez ari garenean, eta kasu honetan halaxe da, hautagarri izateko askatasunaz ari baikara.

#### Hirugarrena.- Joseba Sekundin Ugalde jauna batzarreko kide izatea, Club Vasco de Campingeko ordezkari gisa

Ugalde jauna legezko ordezkaria bada, gehienez ere, konpon daitekeen akats baten aurrean gaude.

Horregatik, administrazio-prozeduraren araudian aurreikusitako epean (hamar egun), federazioaren egoitzan dagokion ekarpena egiteko eskatuko zaio.

Halaber, Domingo García Valerio jaunak egindako erreklamazioa nahiz Hauteskunde Batzordeak emandako ebazpena batzarkideen eskura jartzea erabaki da, eta hauteskunde-espeditentia eskuratzeko aukera izango da federazioak Gasteizen duen egoitzan.

2.- Egiartzatu da Joseba Sekundin Ugalderen hautagai-zerrenda garaiz eta modu egokian aurkeztu zela federazioaren Donostiako egoitzan, eta hautagai-zerrendaren kopia ere aurkeztu zela; hala, bada, Ugalde jaunari eskatuko zaio jatorrizko agiria federazioaren Gasteizko egoitzan aurkezteko bost eguneko epean, hauteskunde-espeditentia jatorrizko dokumentuekin osatzeko.



euskalmendizalefederazioa

3.- Aurrez aipatutako zuzenketen kalterik gabe, bi hautagai-zerrendek hauteskunde-araudia betetzen dutela kontuan hartuta, behin betiko jakinarazpena egingo da; honako hauek dira hautagai-zerrendak:

- a) Joseba Sekundin Ugalde Egaña jauna buru duen HAUTAGAI-ZERRENDA; honako hauek osatzen dute:

Presidentea: Joseba Sekundin Ugalde Egaña  
Presidenteordea: Jose Ramón Alonso Rodrigo  
Idazkaria: Gervasio Anamburu Lasquibar  
Diruzaina: Francisco Javier Antunez Miguelez  
Ordezkeriak: Iñigo Andreu Gastaminza

- b) José Ramón Alonso Rodrigo jauna buru duen HAUTAGAI-ZERRENDA; honako hauek osatzen dute:

Presidentea: Jose Ramón Alonso Rodrigo  
Presidenteordea: Leire Salazar Landazuri  
Idazkaria: Maria del Carmen Merino Gutiérrez  
Diruzaina: Jose Antonio Arriola Alzugaray  
Ordezkeriak: Alberto Montoya Pardo eta David Alday Irure

4.- Bide batez, Euskal Mendi Federazioaren Ezohiko Batzar Orokorreko deia egiten da; 2017ko otsailaren 2an izango da batzarra, Euskal Mendi Federazioak Gasteizen duen egoitzan (Amadeo G<sup>a</sup> Salazar plaza, 2. zk.); lehen deialdia 18:30ean izango da, eta 19:00etan bigarrena. Hau izango da gai-zerrenda:

#### GAI-ZERRENDA

- 1.- Batzarra eratzea.
- 2.- Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea hautatzea eta jakinaraztea.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urtarrilaren 16an

#### HAUTESKUNDE-BATZORDEA

**Presidentea**

**Idazkaria**

**Batzordekidea**